

Euskal Jaia • Zarautz



ZAPI JOKOA. Zarauzko Euskal Jaian Egunera hurbildutako lagunak umoretsu ibili ziren kalez kale, jolasean. Irudian, zapi jokoan ageri dira hainbat lagun.



DANTZA. Musikarekin batera, dantza izan zen atzoko protagonistetako bat Zarautzen.



PARTE-HARTZEA. Hainbat eta hainbat lagun jardun ziren dantzan trikiti doinuaren laguntzarekin.



MUSIKA. Zarauzko kale guztietan barrena musika doinuak entzun ziren atzo, goizean goizetik hasita, txistulari, trikitilari eta dultzaineroei esker.

Musika nagusi Zarauzko Euskal Jaian

Alproja taldeak antzezlan berezia prestatu zuen bere 25. urteurrena ospatzeko, eta kaleetan zehar ibili ziren txistulari eta trikitilariak giro ezin hobea sortu zuten Zarautzen

Ainhoa Sarasola | **ZARAUTZ**

Egun eguzkitsu eta alaiaz gozatzeko aukera izan zuten atzo Zarauzko Euskal Jaietara hurbildu ziren lagunek. Aurten ere, giro aparta izan da, beraz, Zarautzen. Goizean goiz hasi eta gauera arte trikitixa, antzerkia, txistulariak eta beste hainbat

ekitaldi izan dituzte Euskal Jaian Egunean.

Goizeko 8:00etan Goiztarrak taldea kaleetan barna abiatu zen, antzinako pertsonaiak irudikatuz. Trikitilari, txistulari, dultzainari eta Iturengo ttunturroak ere ordu berean atera ziren kaleak alaitzera. Hamarrak aldera, meza izan zen Frantzis-

kotarren Elizan eta, ostean, pilota partidak, herri kirolak eta bertsolariak izan ziren frontoian.

Goizak aurrera egin ahala, gero eta jende gehiago ikus zitekeen Zarauzko kaleetan zehar, gehientsuenak baserritarrez jantzita. Musika plazan bildutakoek txistulariak izan



IÑURRITZARA KALEJIRAN. Urtero bezala, jende asko bildu zen Iñurritzako zelaian erromeria egitera.